

**UMEEN MINTZAIRAZ ETA KANTUEZ (1)**  
**MANUEL LEKUONAREN URRATSAK APAIN-OLERKIAREN**  
**TEORIA MAMITZERAKOAN (I-II)**

*Eibar, 2002-XI-28*

*Juan Mari Lekuona*

**I. 1921: Umeen mintzaira**

Inkesta bat egin zen Hego Euskal Herriko herri batzuetan, gero, 1921ean, argitara eman zen *Anuario de Eusko Folklore*, 1 (1921), 31-37 orr. Lan laburra da, baina aberatsa, umeen mintzairari buruz, aurkezpen modura, Manuel Lekuonak paratu zuena. Ez da literaturako ekaia edo tema, baizik hizkuntzalaritzakoa. Halare jakin beharreko arloa, kulturaren aldetik, analisiak tajuz bideratuko badira.

**Oharkizun orokorrak umeen mintzairaz**

Umeen lexikografiari buruzko azterbide honetan bereizi ditzakegu hiru multzo: a) onomatopeiak; b) itxura aldatutako hitzak; c) lexiko prehistorikotik bizirik dirauten hitzak; d) aditz laguntzailea ez da jokutzen; e) bigarren silabako hotsak, lehenengoa aldatzea, eta haren antzeko gauzatuz.

**1. Onomatopeiak.** Esan nahi du nola hitz baten osagarri fonikoak akustikoki antzaten, sujeritzen edo errepikatzen duten errealtatea, hitzaren bidez adierazia. Bi erakoak izan daitezke horrelako onomatopeiak: **zuzenak**: hitz hots bez errepikatzen direnean izadi batek ateratzen dituen berezko hotsak, adibidez, *guau-guau*, *pipia*, *taka*, *pa*, *aupa*, *kikak*. Eta **zeharkakoak**, non ez dituzten soinuak zuzenak errepikatzen, baizik eta pertsona helduek erabiltzen dituzten hotsak izadi hauekin tratatzen dutenean: *purra-purra* (oiloeekin), *aida-aida* (idiekien), *txiki-txiki* (txerriekin), *tto-tto* (txakurrekin).

**2. Itxuraldatutako hitzak.** Helduen mintzairan erabilitako hitzak dira, baina hitzok erabiltzen direnean umearen organo guztiz heldugabeetan, aldaketak egiten zaizkio hitzari, itxuraldaketak, beti ere arau jakinen barruan eta finkatzen zail ez diren legetan aldaketak egiten zaizkiola.

Umeentzat kontsonante biguinak dira zailenak. Horregatik, ahalegin bat nabaritzen da **Kontsonante bortitzagoak jartzen**, maiz gertatzen da *b* eta *g* hotsak *p* eta *k* bihurtzeko joera (*papo baporen ordez, koxo, goxoren ordez, itxuxi, itsusiren ordez*). Beraz, umeen mintzairan lehenengo legea da hots bortitzak sartzea, biguin eta aspiratuen lekuan.

Umetxoen mintzairan beste ezaugarrietako bat da, palatalizazio eta diminutiboen joera. Eta aipagarria da arreta jartzen zaiola ume-mintzaldian bigarren silabak lehenengoan daraman hotsari: *papata zapatari; txantxi, jantziri*.

**3. Lexiko prehistorikotik bizirik dirauten hitzak.** Badira umeen mintzairan fonema berak errepikatzen dituztenak (*attatta, amama, nañan, arre-erre, pipia*), eta hitz hauek hipotetikoki hartzen ditugu lexiko prehistorikotik bizirik dirautenak bezala (36 or.). Hala nola: *papa* = ogia, *mama* = ura, *txitxi* = okela, haragia, *koko* = arraultza, *titi* = bular, *nini* = umea, *lo-lo* = lo egin, *kaka* = hesteak hustu, *xixi* = erre, eta abar.

Lexiko prehistorikotik bizirik dirauten hitzak ditugu, eta Manuel Lekuonak bere iruzkin-hitzak inkestari buruz atera zituenean, gehiago hitz egiten zuen prehistoriaz. Behar bada hizkuntza hau galdurik zegoelako helduen hizkeratik, baina oso bizirik zegoena umeen hizkuntzan, hala nola umeen mintzairan bakarrik gordetzen diren herri-kontaerak eta zenbait joku izaera zaharretakoak.

**4. Sintasiari buruzko oharra.** Horrelako mintzamoldeen ezaugarririk jakingarriena da esaldiaren erreztasuna bilatzea. Honetan dutela helburu dirudi umeen mintzamoldeak.

Hala nola, aditz laguntzailea ez da jokatzeko umeen hizkeran, zaila egiten zaie nonbait. Eta jartzen da bakarrik aditz-izena nahi den denboraldian (lehen, orain edo gero) *Nork egiten zuri? Nork eman? Gero emango nik*. Horrela, pieza klasikoak dira *Kukurruku. Zer diozu?* Eta kopla hau:

«Arre, arre, mandako:  
bihar Tolosarako  
etzi Iruñarako.  
-Andik zer ekarriko?  
-Zapata ta gerriko».

Beraz, umeen mintzarak baditu:

- 1) Onomatopeiak
- 2) Itxura aldatutako hitzak
  - a) Kontsonante bortitzak tartekatzea
  - b) Palatalizazio eta diminutiboen joera ugaritzea
- 3) Aditz laguntzailea ez da jokatzeko

- 4) Bigarren silabako hotsak, aldatzen du lehen silabakoa, bigarrenaren antzekoa sartuz.

(Ikus: Manuel Lekuona, «Lenguaje infantil», in *Anuario de Eusko Folklore*, 1 (1921), 31-37 orr.)

## II. 1933: Umeen kantuak

*Yakintza* aldizkariko zuzendariak gomita egin zion Manuel Lekuonari lan bat egin ziezaiola *Ume kantuei* buruz. Eta artikulua gorpuzta osatzeko, Gasteizko seminarioan euskal literaturari buruz ematen zituen erakusaldiak aukeratu zituen. Bergaran, 1930ean eman zuen mintzaldiagatik, eta ondorengo arrakastaren ondoren, ziur zegoen zuzendaria ospea eta izen ona emango dizkiola aldizkariari Manuel Lekuonaren lanak.

### 1. Umeen artea eta harpeetako artea

Umeen arteak antza handia du antzinateko gizakiaren artearekin, Neolitiko garaian bizi ziren kulturazko gizakiek eta gaur egungo umeek antz-antze-ara egiten dituzte beren marrazkiak.

Arte neolitikoaren ezaugarri bereziena estilazioa da. Orobat umeen kantuen hizkuntza estilatu dela esan behar. Zinuen sailak, guretzat ez dira pasatzen dekorazio-soil diren marrazkiak izatetik, baina primitibo hautentzat gordetzen dituzte askotan poema osoak.

Hemen ere, umeen olerki hizkuntza estilatu egiten da, hotsezko zaion joerari eutsiz; eta esanahiaren aldetik ezer esaten ez badute ere hotsak ospetsu eta entzungarriak dira, diztiratsiak, berritasunez konbinatuak, eta artifizio harrigarriak landuak.

### 2. Estilazioak zer dakarkion testuari

a) **Itxuraldatu eta deformatu egiten du hitzen hotsa bera:** horrela gertatzen da bele-ehizaren deskripzioan, non batetik zortzira zenbatzerakoan, GA bat ipintzen zaio enumeraketan, hotsa aldatuz:

«Baga, biga, higa,  
laga, boga, sega,  
zai, zoi, bele  
arma, tiro, pun!»

«(Uno, dos, tres,  
cuatro, cinco, seis,  
siete, ocho, cuervo;  
arma, tiro, pun).»

b) Ez dira hitzak itxuraldatzen, baizik berbaldia bera: murriztuz esaldia bera, zenbait hitz kenduz (aditz laguntzailea ez jokatuz, iluntzen dela esaldia bera):

«Xirristi-mirristi, gerrena, plat  
olio-zopa, kikili salda  
urru, edan edo klik!...  
Ikimilikili klik».

«Xirristi, mirristi, asador, plato,  
sopa de aceite, caldo de gallo,  
tragar, beber o engullir...  
Ikimilikili klik»

c) Besteetan, estilazioa egiten da nahasten direnean euskal hitza, erdarazkoekin:

«Arriyola-briyola  
echo la cama la  
victo-victoria...  
Bringun-brangun  
Plixt!»

«Arriyola-briyola  
echo la cama la  
victo-victoria...  
Tambaleo-tambolea  
Plixt!» (Apagón)

d) Onomatopeiak: «Pun, klik, ikimilikili klik, bringun-brangun...»

Onomatopeiak esan nahi du nola hitz baten osagarri fonikoak, akustiko-ki antzaten, sugeritzen edo errepikatzen duten, errealitatea hitzaren bidez adierazia. Estilizatzeko prozedura handienetako bat dugu. Onomatopeia ba-koitza da umearantzat, lauki bizi bat, poema oso bat. «Kukurruku» batek bi-ziarazten dio umetxo bati, Birgiliok pertsona edadetu bati sujeritu diezaioke-ena baino gehiago.

\* \* \*

### 3. Mimika eta melodia

Umeen kantuak beti dira musikatuak eta mimikatuak. Umeen kantua, hala izango bada, jolasbide izan behar du. Mugimendu handiko joko bat. Mimikak parte garrantzitsua suposatzen du, ume baten entretenimendu aukeratuetan.

Bestalde, umeen ideologia, antzinateko gizakiarena bezalatsu, giro batean lekutzen da, magia eta misterioz blai eginda dagoen mundu batean.

Antzeko bidetik, behar bada, umetxoen kantuak, estilizaturiko kantuak, alde zurretik izan zuen gramatikalago poema bat, kantatua eta mimikatua, neurritsua eta bizi urria duena bere trazoetan, arte magdalenensienaren bikote bezala.

### 4. Elementu folklorikoak

Gainerakoan, esango digu Manuel Lekuonak, ahal duen eran, saiatuko dela Euskal Herriko elementu folklorikoei eusten, hain direnez aberatsak alde

horretatik: euskal ume-kantuak, doinuak, sagaratutako formulak, errepikak, esaldiak, onomatopeiak, pertsonaien izenak eta izpiritua, toponimia eta abar.

\* \* \*

Behin une honetara iritsiz gero, ez da gehiegizko gauza izango beste eredu batzuk aurkeztea. Horrelako kantuak izan litezke giarik hoberena umeen kantuak ikertzeko, estudiatzeko:

1. Arriola-marriola, kun-kuan-kin...  
 –Porta zelan? –Porta min.  
 Arrixamalet-marrixamalet  
 kirun-karun pek!
2. Pin-pon, lau seron;  
 tres sardinas y un capón;  
 saltxa-pika, tortolika  
 de putzon.
3. Don-don kikelabon;  
 saltsa-luka, esla-buka  
 buka, madre, saltsa-bon;  
 likan-likan, tortolikan...  
 Bran-brutx!
4. Don-don, kikilikon;  
 saltsa-pica, tortolica...  
 Bran-brutx!
5. Don-don, irten;  
 sakati fuera.
6. Don-don, ke-bon;  
 attona Martxelon;  
 kiski-ti, kaska  
 kaska-melon.
7. Don-don, kikilikon;  
 tartali kopulente,  
 attona Martxelon  
 kañabera-kañabera  
 lau pilikon;  
 mizketan-mizketan  
 koxka melon.
8. Don-don-don;  
 bera-bera baña  
 cuatro ríos que hay en Prantzia  
 arre matxube,  
 arre mandube  
 don-don-don  
 que se salga usted.

9. Pin-pon, la-Va la-Valentzia,  
aquí Española Prantzia;  
pone-pone así  
aberia opendi  
Pin-pon, Don Vicente Don.
10. Dona-dona Isabela  
Manuela, Catalina  
veinte bonete,  
zipi-zipitón  
Martin-zapatón,  
kañabela tronpeta,  
lau kirikon;  
zaku zar batian  
iru gizon;  
lau kiri-andre  
bost señala gurutze  
Elduñeta Santa  
Gurutze.
11. Dona-dona katona  
kike-lurden mantzana;  
tuturupe, tuturupe  
ocho y nueve San Andrés.
12. Dingi-lingi mañe  
bizar Santa Mañe  
etzi San Andrés;  
abadie kantuan,  
umia zilluan;  
atte samiñez,  
ama negarrez.  
Din-dana.
13. Elie,  
errotan gari berrie;  
Antziola'ko oyan azpin  
aingeru kaska-zurie.
14. Arrelando-lando  
Marikita buscando;  
cinco compañía;  
emen gatoz lau  
kanpae-joten bi;  
emaizu limosnia  
Jaungoikuagaitik.

15. Otsailko-otsailko,  
guk otzoa biek ilko;  
okela bat eta okela bi  
nere burruntzie bete bedi.
16. Txixta-mixta, organixta;  
emen ez dagola, or dagola.
17. Mix-mix, Erramix;  
arratoia kolkoan;  
ematen, ematen, ematen...  
neronei ematen.
18. Iru ta iru, sei  
iru bederatzi  
amar hemeretzi,  
bat hogeï;  
kixkili ta mixkili  
irurogei.
19. Iru ta iru sei,  
iru bederatzi,  
amar hemeretzi,  
bat hogeï,  
bost egun,  
sei mila, atxuketa-bila;  
Ku-ku!
20. Kurrilo-kurrilo lepo-luze;  
Naparro-naparro bide-luze.
21. Fuera-fuera  
xexena fuera;  
adarra motxa  
punta-xorrotxa...  
Arrapatzen ba-zaitut,  
arrapatzen ba-zaitut,  
bertan-bertan ilko zaitut.
22. Txan-txin-txibirin,  
Bilbo'ra ba, une.  
-Txan-txin-txibirin  
zer eiten?
23. Txan-txin-txibirin  
makillatxuek  
txan-txin-txibirin  
ekarten.

24. Atzian-motzian, peroli-pan,  
zeure semiak errotan  
topa eban asto bat;  
kendu entzan besten bat,  
ipiña entzan beste bat.  
    errota zarra  
    errota-barri,  
    kris-kraus.
25. Zubiri-zubiri, nungori-nungori?  
Nungo alkate zerade?  
Prantzia'ko Errege baten  
seme-alabak gerade...  
–Zubi ontatik urren-urrena pasatzen dana  
emen geldituko dala  
emen geldituko dala
26. Txin-txirikitin txorie,  
txoritxo txilibitarie...  
Erein nuen ogie  
oso arlo aundie:  
uste nuen eun anega,  
imiña bat zan guztie  
imiña bat zan guztie...  
Txin-txirikitin, txorie,  
txoritxo txilibitarie.

\* \* \*